

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

231

AGINDUA, 2024ko abenduaren 23koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko behin-behineko langile bat lanpostutik kentzea xedatzen duena.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 30.5 artikuluan ezarritako aurreikuspenak aplikatuz, hemen zehazten den kargu-uztea sinatzen dut:

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Eva Salgado Echebarria andrea proiektu estrategikoetako aholkulari kargutik kentzea Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailean (5329 kodea, 1 dotazioa, zuzendari-maila), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-uzteak 2024ko abenduaren 23an izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta beronen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 23a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.